



Maskara kutxak biltegi batean. Artxiboko irudia da. JULIO MUÑOZ/EFE

Maskaren auzian CEN ere erantzule dela gogorarazi du Kontu Ganberak

Sodenak «garden» jokatu zuela esan arren, diru publikoa «zorrotzago» kudeatzeko eskatu dio

Ion Orzaiz

Maskaren auzia urteko eztabaida politiko mikatzenetako bat izan da Nafarroan. Auziaren erdian, hiru gako nagusi: pandemiaren hasieran Sodena sozietate publikoak CEN Nafarroako Enpresarien Elkargoarekin sinatutako hitzarmen bat, milioi bat euroren galerak, eta diru publikoarekin pagatutako 1,7 milioi maskara, biltegi batean gordeta. Eskuin espainiazaleak ez zuen aukera galdu, eta krisia baliatu zuen Nafarroako Gobernua hitzatzeko. Orain, Kontu Ganberak txosten bat argitaratu du aferari buruz, eta ebatzi operazioa «legezkoa» eta «garden» izan zela.

Hutsuneak eta gaizki eginiokoak atzeman ditu erakundeak, baina erantzukizuna «partekatua» dela uste du: alegia, Sodenak ez ezik, enpresariak ere badutela erantzukizunik diru publikoaren galeran. Hauek dira txostenaren ondorio nagusiak.

GARDENTASUNA

●●● «Ezohiko» egoerak baldintzatuta

Kontu Ganberak nabarmendu du Sodenak, CENek eta Albyn Medi-

cal enpresak 2020ko apirilean sinatu zutela maskarak erosteko akordioa. Pandemia piztu eta berehala ezarritako itxialdian, alegia. «Egoera ezohikoa hartu behar da kontuan, eta dena garden-tasunez egin izana», azaldu dute. Hala ere, gaineratu dute Sodenak baimena eskatu behar ziola Nafarroako Gobernuari halako hitzarmen bat sinatzeko.

HITZARMENAREN EDUKIA

●●● «Betebeharrak ez» enpresarien elkartearentzat Sinatutako hitzarmenak gabezia nabarmenak zituen. Ganberaren esanetan, horietako bat zen «enpresak ez zutela konpromiso irmorik hartu Albyn enpresak inportatutako maskarak erosteko». Zer esan nahi du horrek? Bada, Nafarroako Enpresarien Elkargoak maskarak eskatu bai, baina hitzarmenean ez zuela inongo betebeharrak sinatu gero diru publikoekin erositako maskara horiek ordaintzeko.

«Hitzarmenaren ondorioz sor litezkeen arazoak nola konpondu ere ez zuten zehaztu. Eta hitzarmenak ez zuen behar bezala babesten inplikaturik zegoen diru

publikoa», irakur daiteke oharrean.

ERANTZUKIZUNAK

●●● *Patronala ere bada erantzule, nabarmendu dutenez* Txostenean nabarmendu duten hirugarren konklusioa da diru publikoa galdu izanaren erantzukizuna ez dela alde bakarrekoa: «Sinatzaile guztiak dira akordioaren hutsuneen erantzule. Beraz, erantzukizuna onartu behar dute, bai onarturiko betebeharrak eta bai hitzarmenak aintzat hartu zituen kontuei dagokienez».

Pernandoren egia dirudi baieztapen horrek, baina Kontu Ganberak badu hori esateko motiborik. Izan ere, orain arte Nafarroako Enpresarien Elkarteak ukatu egin du auzian erantzukizunik duenik. Are: Nafarroako Gobernuarekin konponbide bat adosteko baldintza gisara jarria du edozein erantzukizun ekonomiko edo judizialetik salbuetsita egonen dela patronala. Agian horregatik, CENek helegitea aurkeztu dio Kontu Ganberaren txostenari ere.

Hala ere, kontua auzibidean jarzteari uko egin dio erakunde fiskalizatzaileak: «Kaltagarria litzateke

afera honekin auzitara jotzea. Hala gertatuko balitz, oraindik erabilgarriak diren maskarak ere galduko lirateke».

Nafarroako Gobernuak Iruñerrian dituen bi biltegiatan daude gordeta maskara horiek. Guztira, 1,7 milioi dira. Horietako batzuk (11.520) iraungita daude jada. Gainerakoek 2023ko apiriletik 2024ra arteko iraungitze data dute. Txostenaren arabera, 1,8 milioi gastatu zen saldu gabeko maskara horietan guztietan, baina, oraingo prezioak kontuan hartuz, 126.600 euro balio dute soilik.

KONPONBIDEA

●●● *Adostasun beharra, maskarak erabili ahal izateko* Kontu Ganberak uste du auzian inplikaturako alde guztiak konponbide bat adostu beharko dutela, biltegiatan pilatuta dauden maskarak «ahalik eta azkarren ateratzeko, iraungitzea eragozte aldera». Adostasuna erdiesteko bidea «kanpoko bitartekaritza» izan daitekeela ere esan du erakunde ikuskatzaileak. Aurrera begira, Sodena sozietate publikoari zorrotasun handiagoa eskatu dio, «diru publikoaren defentsan».